

Merkatuen segmentazioa

Bezeroak gure negozio-ereduaren oinarria dira, haiek gabe enpresak ezin duelako epe luzera iraun. Horregatik, beharrezkoa da bezeroak beren ezaugarri komunetan oinarrituta taldekatu eta bakoitzaren beharrak modu egokian asetzea.

Gure proiektuan merkatu segmentatua dago, bezero-talde desberdinak identifikatzen direlako. Alde batetik, eguneroko kontsumitzaileak daude, produktu sinpleagoak eta eskuragarriak bilatzen dituztenak; bestetik, ospakizunetarako bezeroak, pastel eta gozoki pertsonalizatuak eskatzen dituztenak, kalitatea eta diseinua lehenetsiz.

Beraz, bezero-segmentu bakoitzak behar eta itxaropen desberdinak dituenez, eskaintza egokitua egitea funtsezkoa da, bezeroen gogobetetasuna handitzeko eta negozioaren jarraitutasuna bermatzeko.